Garazi, garaztar	: Cise
Kanbo, kanboar	: Cambo
Nafarroa, nafartar	: Navarre
erakustokia	: musée
Bidarra, bidarratar	: Bidarray
Baigorri, baigorriar	: Baïgorry
Ezpeleta, ezpeletar	: Espelette

154-155

Gernika	: Guernica
Donostia, donostiar	: St. Sebastien
Bilbo, bilbotar	: Bilbao
baloi	: ballon
gogor	: dur
jo	: frapper
gol	: but

-157-

nolako	: quel genre de
gaurregun	: aujourd'hui

izigarri	: terrible
gaitz	: immense
harritu	: étonner
ukaldi	: coup

158-159

zilko	: nombril
salatari	: mouchard
erbi	: lièvre
tarrapata	: hâte

-160-

Araba	: Alava
Gipuzko	: Gipuzkoa
Bizkai	: Biscaye
ezberdin	: différent
osatu	: compléter
hondatu	: détruire
lehen	: autrefois
fama	: rumeur
hitzeman	: promettre
dendari	: couturière, commerçant
nihun	: nulle part
urtxo	: palombe

Hau etxe ederra !

161. Etxean - Egoitza berria

Familia egoitza berrian sartzen da.

Ama – Hona oporretako egoitza berria.

Maidar – Ez da biziki handia.

Aita – Zer ez dela handia!

Bost gela ditu.

Hemen neskatoen logela,

hor mutikoen eta

han aitamena.

Peio – Hau egongela da

eta non da jangela?

Ama – Sukaldea da jangela.

Badugu hozgailu ederra

eta sutegia bere labearekin.

Ioana – Non dira komunak?

Ama – Mainugela eta komunak

kolidor buruan dira.

Xabier – Non jostatuko gara?

Aita – Galerian jostatuko zarete.

Hola guziak ongi izanen gara.



162. Errepika - Norena, bakar, anitz.

Haur bakar :

Haurrak badu ohea.

Haurraren ohea da.

Ohea haurrarena da.

Haurrak, haurraren, haurrarena.

Neskak, neskaren, neskarena.

Ibanek, Ibanen, Ibanena

Haur anitz :

Haurrek badute gela.

Haurren gela da.

Gela haurrena da.

Haurrek, haurren, haurrena.

Neskek, nesken, neskena.

Ioanak, Ioanaren, Ioanarena.

163. Eleketa - Etxearen plana.

Nork bere etxearen plana deskriba.

1. Gela hau sukaldea da.

2. Gela hori nire logela da.

Gela hura aitamena da.

2. Hemen egongela da.


Hor jangela da.

Han mainugela da.

164. Eskolan - Etxea marrazten

Irakasleak etxea marrazten du arbelan

- Irakaslea – Zer egiten dut, Beñat?
Beñat – Ormak (murreak).
Orma xuriak.
Irakaslea – Eta orain?
Beñat – Teilatua ximinearekin
edo kebidearekin.
Oihana – Kea zerura igaiten da.
Irakaslea – Zuri Oihana.
Oihana – Atea, leiho bat, bi leiho,
hiru leiho, lau leiho.
Irakaslea – Zer falta da?
Beñat – Pintto bere tegiarekin.
Oihana – Zeruan eguzkia eta lañoak.
Irakaslea – Zuek ere egin ezazue
etxe eder bat, margo anitzekin.



165. Errepika - Norekin eta zerekin ?

Alaba bakar :

Alabak badu aita.
Alabaren aita da.
Aita alabarekin da.

Alaba anitz :

Alabek badute aita.
Alaben aita da.
Aita alabekin da.

Haur bakar :

Haurrak badu ama
Haurraren ama da.
Ama haurrarekin da.

Haur anitz :

Haurrek badute ama.
Haurren ama da.
Ama haurrekin da.

166. Eleketa - Etxea marraztuz.

*Ikasle batek etxea marrazten du,
besteak gauzak izendatzen ditu elgarri lotuz.*


Teilatua teilekin. Ximinea kearekin.
Ormak leihoekin. Atea alazearekin.
Pintto bere tegiarekin. Zuhaitzak xoriekin.



167. Gizartean - **Etxea erosten**

Mailux eta Txominek etxea erosi nahi dute.

- Saltzailea – Hona etxe ederra.
Orma (muru) zuriak teilatu gorriarekin.
- Mailux – Kanpoa gustatzen zait niri.
Zenbat gela ditu?
- Saltzailea – Egon gela, jan gela eta sukaldea ;
Hiru logela eta mainugela (ikuzgela)
Gustatzen zaizue?
- Txomin – Etxea hau ederra iruditzen zaigu,
baina ingurua ikusi behar dugu.
- Saltzailea – Begira itzazue lorategia eta baratzea;
atea balkoiarekin.
- Mailux – Balkoi txar hori ez zait gustatzen, niri.
Ate hori bai. Eta zuri, Txomin?
- Txomin – Niri ere bai.
Suerte ona gertatu zaigu.



168. Errepika - **Zer nori.**

NOR	NORI	NOR	NORI	
Haurra Txomin Martta	haurrari Txomini Marttari	Ni eta hi Ni eta zu Gu eta zuek	niri eta hiri niri eta zuri guri eta zuei	
NORI	ZER	(EZ)	ADITZA	(BAI)
Niri	etxea		gustatzen	zait
Niri	logela	ez zait	gustatzen	
Txomini	laguna		etorri	zaio
Guri	ederra		gertatu	zaigu
Zuri	pesta	ez zaizu	gustatzen	
Zuei	pesta	ez zaizue	gustatzen	
Denei	airosa		iruditzen	zaie

169. Eleketa - **Etxe bisita.**

- Saltzailea – Hona etxe handia.
- Senarra – Ederra iruditzen zait.
- Emaztea – Ederra iruditzen zaizu? Niri ez...

170. Kantua - Ikusten duzu

1. Ikusten duzu goizean
Argia hasten denean
Menditto baten gainean

Etxe ttipitto aitzin xuri bat,
Lau haritz ondoren erdian,
Xakur xuri bat atean,
Iturriño bat aldean,
Han bizi naiz ni bakean (bis).

2. Nahiz ez den gaztelua
Maite dut nik sorlekua
Aiten aitek hautatua (bis).

Etxetik kanpo zait iduritzen
Nonbait naizela galdua
Nola han bainaiz sortua
Han utziren dut mundua
Galtzen ez badut zentzua (bis).

Hiztegia 16

161-163

egoitza	: appartement
oporak	: vacances
gela	: pièce, local
sutegia	: cuisinière
labe	: four
hozgailu	: réfrigérateur
mainugela	: salle de bain
kolidor	: couloir
galeria	: balcon

164-166

marraztu	: dessiner
teilatu	: toit
ke, kebide	: fumée, cheminée
margo	: couleur
arbela	: tableau
zeru	: ciel
leiho	: fenêtre
ate	: porte
tegi	: niche
lotu	: lier
atalaze	: seuil

167-169

ikuzgela	: salle de toilette
inguru	: alentour
iruditu	: sembler
lorategi	: jardin
baratze	: potager
balkoi	: balcon
bisitatu	: visiter

-170-

argia	: lumière
menditto	: colline
iturri	: source
gaztelu	: château
sorleku	: lieu de naissance
hautatu	: choisir
utzi	: laisser
zentzu	: esprit
aitzin	: façade

17. Erosketak

171. Gizartean - Liburu dendan

Anai-arrebak puska (gauza) erosten.

- Saltzailea – Egun on Maite eta Beñat.
Zer nahi duzue ?
Maite – Liburu hau nahi dut.
Zenbat balio du liburu honek ?
Saltzailea – 13 euro.
Maite – Kario da.
eta beste horrek?
Saltzailea – 6 euro eta berrogeita hamar zentimo.
Maite – Merke da. Erosten dut.
Beñat – Nik bi kaier nahi ditut.
eta hiru arkatz (kraion).
Saltzailea – Kaierak 2 € balio ditu (2).
eta arkatzak hirurogei zentimo (60).
Maite – Orotara zenbat zor dugu ?
Saltzailea – Hamabi euro eta hogeita hamar zentimo.
Maite – Hori zu.
Saltzailea – Zuzen zuzena da. Milesker.
Beñat – Guk zuri. Agur.

172. Errepika - Dirua erabil.

Xehea: euro bat, bi euro, bost euro.

Biletak: hamar euro, hogeituro, berrogei-ta-hamar euro, ehun euro.

173. Eleketa - Saltzailea eta erosleak.

Saltzailea	– Zer nahi duzu?	100 hosto	2 €
Eroslea	– Nik papera nahi dut	5 kaier	5 €
Saltzailea	– Zenbat hosto?	5 estalgi	3 €
Erosleak	– Ehun hosto.	12 arkatz	4 €
Saltzailea	– Hori zu.	2 liburu	12 €
Eroslea	– Zenbat balio dute?	10 azal	1,25 €
Saltzailea	– Bi euro.		
Eta besterik ?		Orotara	27,25 €



174. Lagunartean - Present ederra



Koldok bere adiskideari presenta egin nahi dio.

- Saltzailea – Zer nahi duzu?
Koldo – Maddiri zerbait erosi nahi diot.
Saltzailea – Zer erosiko diozu zure adiskideari?
Koldo – Edergailu bat.
Saltzailea – Ordulari honek plazer egingen dio.
Koldo – Jadanik gurasoek eman diote.
Saltzailea – Beraz lepoko hau,
edo esku-zaku hori
edo ukaiko hura.
Koldo – Berari galde egingen diot.
Orain panpina hau hartuko diot.



175. Errepika - Nori


- Koldoren liburua eman Koldori
- Maddirena Maddiri eraman.
- Lagunaren zakua utz lagunari.
- Nirea niri eta hirea hiri.
- Gurea guri eta zurea zuri.
- Beñatek pilota hartu du eta Peiori eman dio.
- Nik pilota hartu dut eta lagunari eman diot.
- Zuk pilota hartu duzu eta lagunari eman diozu
- Guk pilota hartu dugu eta lagunari eman diogu.
- Zuek pilota hartu duzue eta lagunari eman diozue.
- Ikasleek pilota hartu dute eta lagunari eman diote.



176. Eleketa - Erosketak

Agurrak egin eta gero xuingomak (edo erregailuak) eros.

- Saltzailea – Zer nahi duzu?
Eroslea – Xuingomak nahi ditut oñoñekin.
(Zigarretak nahi ditut supiztekoekin).
Saltzailea – Hori zu.
Eroslea – Zenbat da?
Saltzailea – Euro bat eta hogeitabost zentimo.
Eroslea – Hona bi euro. Ez dut xeherik
Saltzailea – Hirurogeita hamabost zentimo
zor ditut. Hori zu.



177. Familian - Okindegian

Ama ogi erosten.

- Okina – Zer nahi duzu, Etxemendi anderea?
 Ama – Bi ogi handi familiarentzat.
 Okina – Hori zu, eta gero?
 Ama – Opilak haurrentzat.
 Maider – Zer dute barnean?
 Okina – Hemen xokoleta,
 hor mahatsa.
 Maider – Guretzat opila xokoletarekin.
 Peio – Niretzat opila mahatsarekin.
 Ama – Zer erraten diozue okinari ?
 Haurrak – Esker mila. Milesker. Eskerrik asko.
 Okina – Zer ekartzen diozu senarrari ?
 Ama – Gozoki handi bat eremanen diot.
 Maider – Denen janen dugu.



178. Errepika - Norentzat, norendako?

- Haurra, haurren, haurarentzat, haurrendako
- Haurrak, haurren, haurrentzat, haurrendako.
- Maider, Maiderren, Maiderrentzat, Maiderrendako.
- Peio, Peioren, Peiorentzat, Peiorentdako.
- Gu, gure, guretzat, guretako.

NOR	ZER	(EZ)	ADITZA	(BAI)	NORI
Nik	opila		erosi	diot	okinari
Zuk	ogirik	ez diozu	erosi		okinari
Maiderrek	gozokia		erosi	dio	okinari
Guk	xokoletik	ez diogu	ekarri		amari
Zuek	mahatsa		ereman	diozue	amari
Aita-amek	ononik	ez diote	erosi		haurrari

179. Eleketa - Ezbaika, atzo, egun, bihar.

- | | |
|-------------------------------------|-----------------------------------|
| 1. Atzo nik opila ekarri diot amari | 1. Egun nik opila erosten diot |
| 2. Nik ez diot opila ekarri amari. | 2. Nik ez diot opila erosten. |
| Xokoleta ekarri diot. | |
| 3. Nik ez diot xokoletik ekarri. | 1. Bihar nik opila ekarriko diot. |
| Mahatsa ekarri diot. | 2. Nik ez diot opila eremanen. |

180. Kantua - Joan nintzen azokara

-1-

Behin joan nintzen azokara.
Erosi nuen xakur bat.
Xakurrak hau hau !
Nik sasa berari.
Ereman nuen amari.

-2-

Behin joan nintzen azokara.
Erosi nuen gatu bat.
Gatuak miau,
Xakurrak hau hau,
Nik sasa berari.
Ereman nuen amari.

-3-

Behin joan nintzen azokara.
Erosi nuen txerri bat.
Txerriak gre gre !
Gatuak miau,
Xakurrak hau hau.
Nik sasa berari.
Ereman nuen amari.

-4-

Behin joan nintzen azokara.
Erosi nuen txistu bat.
Txistuak fliu fliu !
Txerriak gre gre,
Gatuak miau,
Xakurrak hau hau,
Nik sasa berari.
Ereman nuen amari.

Hiztegia 17

171-173

puska	: furniture
kario	: cher
merke	: bon marché
zor	: dette
hori zu	: voilà
estalgia	: enveloppe
azal	: couverture

174-176

presenta	: cadeau
ukaiko	: bracelet
panpina	: poupée
ordulari	: montre
eraman	: porter
erregailu	: brûleur
oñoña	: bonbon

177-179

opila	: petit pain
xokoleta	: chocolat
mahatsa	: raisin
ekarri	: apporter
gozoki	: pâtisserie

-180-


azoka	: place
txixtu	: flûte
sasa, soso	: (pour calmer les animaux)

18. Egunero (egun oroz)

181. Etxean - Eskolako berri

Eskolako berrietaz eleketan.

- Aita – Zer ikasi duzue eskolan?
 Maider – Goizean frantsesa ikasi dugu:
 lehenik irakurketa, gero diktaketa.
 Aita – Eta zuk Peio?
 Peio – Goizean idazketa eta arratsaldean
 zientziak ikasi ditugu.
 Euskaraz ere izan gara.
 Aita – Zuk ere zientziak egin dituzu, Ioana?
 Ioana – Ez, matematikak landu ditut.
 Lau jokoak : gehiketa, kenketa,
 zatiketa eta biderketa.
 Gero euskaraz kantatu dugu.
 Aita – Eta zu Peio, ongi jostatu zara?
 Peio – Lan egin dut nik ere:
 kondaira eta geografia.
 Aita – Zer ikasle langileak!
 Aita-amei plazer egiten diezue.



182. Errepika - Zer nori nork.

	BAKAR		ANITZ
NORI	Ikasleari amari haurrari		ikasleei amei haurrei
NORK	NORI	ZER	ADITZA (BAI)
Nik	lagunari	pilota	hartu diot
Nik	lagunei	pilota	hartu diet
Hik	anaiari	liburua	irakurri diok/n
Hik	anaiei	liburua	irakurri diek/n
Amak	alabari	gona	erosi dio
Amak	alabei	miraila	erosi die

184. Eskolan - Ikasleekin

Adereñoak ikasleak entzuten ditu.

- Maite – Ni goizik jaikitzen naiz eta begitartea ikuzten dut.
Beñat – Ni zazpietan jaikitzen naiz eta autobusa zortzietan hartzen dut.
Maite – Amak eta nik, hurrei askaria prestatzen diegu eta denak askaltzen (gosaltzen) gara.
Beñat – Gure klaseak bederatzieta hasten dira.
Maite – Egurditan kantuan bazkaltzen gara. Bietan berriz ikasgelara joaten gara.
Beñat – Lauetan etxera itzultzen gara eta etxean ariketak egiten ditugu.
Maite – Zortzietan afaltzen gara. Gero telebistari begiratzen diogu.
Beñat – Gero denak etzaten gara.



185. Errepika - Zer nori nork.

NORK	NORI	ZER	(BAI)
Guk	haurrari	lana eman	diogu
Guk	hurrei	lana eman	diegu
Zuk	anaiari	jostailua hautsi	diozu
Zuk	anaiei	jostailu hautsi	diezu
Zuek	lagunari	baloia kendu	diozue
Zuek	lagunei	baloia kendu	diezue
Ikasleek	irakasleari	ipuina kondatu	diote
Irakasleek	ikasleei	ipuina kondatu	diete

186. Eleketa - Atzo zer egin duzu?

Maitek eta Beñatek atzoko eguna kondatzen dute.

- Maite – Atzo goizik jaiki naiz eta begitartea ikuzi dut.
Beñat – Autobusa zortzi orenetan hartu dut.

Maite – Amak eta nik askaria prestatu diegu hurrei.
Beñat – Klaseak bederatzi orenetan hasi dira...

187. Lagunartean - Egun eta zer?

Galtxagorrik bere eguna kondatzen du.

- Maider – Zer ari zara aste honetan?
 Galtxa – Goizeko zazpi orenetan jaikitzen naiz.
 eta askaltzen (gosaltzen) naiz.
 Maider – Gero autobusa hartzen duzu?
 Galtxa – Bai eta egunkaria irakurtzen dut.
 Lantegi aintzinean autobusetik jausten naiz
 eta eguerdi arte lanean aritzen naiz.
 Maider – Ostatuan bazkaltzen zara?
 Galtxa – Bazkal saria ostalerrari ordaintzen diot.
 Bi orenetarik seieta berriz lanera.
 Maider – Gero Maddiri telefonatzen diozu?
 Galtxa – Edo lagunei eskukaldi bat ematen diet.
 Maider – Afal ondoan telebistari begiratzen diozu.
 Galtxa – Gauerditan oheratzen naiz.
 Maider – Eta biharamunean berriz haste.



188. Errepika - Zer nori nork.

NORK	(EZ)	NORI	ZER	(BAI)
Nik Zuk	ez diozu	ostalerrari ostalerrari	ordaindu ordaindu	diot
Mixelex Maddik	ez dio	Maddiri Mixeli	telefonatu telefonatu	dio
Guk Zuek Hurrek	ez diozue	telebistari emankizunari emankizunari	so egiten so egiten so egiten	diogu diote

189. Eleketa - Gero zer egingen dugu?

Maddik Mixeli biharko eguna kondatzen dio: ikus elkarritzeta.

- Mixel – Maddi, bihar zer egingen duzu?
 Maddi – Zazpi orenetan jaikiko naiz eta askalduko.
 Mixel – Gero autobusa hartuko duzu?
 Maddi – Bai, eta egunkaria irakurriko dut...

190. Kantua - Xarmegarria

1. Xarmegarria zira, eder eta gazte.
Ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
Bertze zenbait bezela ote zira libre?
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez dut.
2. Xuri gorria zira, arrosa bezala:
Profetak ez dira mintzo hola hola.
Araberan bazinu gorputza horrela,
Iduriko zinuen zeruko izarra.
3. Oi maitea, zatozkit plazer duzunean,
Nehork ikusi gabe, ilunabarrean.
Lagun bat badukezu joaiteko bidean:
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Hiztegia 18

181-182

egunero	: chaque jour
irakurketa	: lecture
diktaketa	: dictée
zientziak	: sciences
landu	: travailler
jokoak	: opérations
kondaira	: histoire
geografia	: géographie
plazer	: plaisir
miraila	: miroir
idazketa	: écriture

184-186

klase	: classe
ariketa	: exercice
begira, beha	: regarder
etzan	: se coucher
jostailu	: jouet
kondatu	: raconter
hautsi	: casser

187-189

sari	: prix
eskukaldi	: aide
biharamun	: lendemain
emankizun	: émission
elkarrizketa	: dialogue
galtzagorri	: diabolotin
ohe	: lit
oheratu	: se coucher

-190-

xarmagarri	: charmant
baizik	: seulement
duda	: doute
arrosa	: rose
arabera	: proportion
izar	: étoile
nehor, inor	: personne
ilun	: nuit
ilunabar	: crépuscule

19. Zer eguraldia!

191. Etxean - Eguraldi txarra

Familia etxetik jalgitzen da euriarekin.

- Aita – Euria dugu, haurrak!
Har izatzue gabardinak eta botak.
- Maite – Botak ez zaizkit gustatzen.
- Aita – Baina zerua goibel da.
Lano anitz dira.
- Ama – Guk aterkiak hartzen ditugu.
Euri uharra ari da.
- Peio – Haize hotza da.
Ortzia eta ximistak ari dira.
- Maiderr – Bai eta ortzia eroriko zaigu.
- Aita – Ez izi haurra! Euriaren ondotik
eguzkia etorriko zaigu.

192. Errepika - Nor nori

- Eguraldi ederra gustatzen zait niri.
 - Egun ederrak gustatzen zaizkit niri.
 - Ximixtak ez zaizkit gustatzen niri.
-
- Oseba Manex etorri zaizu zuri.
 - Oseba eta izeba etorri zaizkizu zuri.
 - Kusunak ez zaizkizu etorri zuri.
-
- Izeba Maia etorri zaio Maiderrri.
 - Oseba eta izeba etorri zaizkio Maiderrri.
 - Lagunak ez zaizkio etorri Maiderrri.

193. Eleketa - Euri ala eguzki?

Eguraldi txarraz mintza, bakoitzak erranez zer gustazen zaion.

1. Euria da.
2. Euria ez zait gustatzen. Eguzkia bai.
3. Laño anitz dira.
4. Lañoak ez zaizkit gustatzen. Ximixtak bai.
5. Haizea da.
6. Haize hegoa gustatzen zait. Haize hotza ez.



194. Lagunartean - Eguraldi ederra

- Maddi – Eguraldi (denbora) ederra dugu.
Zer egingen dugu?
- Koldo – Kasu, zeruan lañoak badira.
- Maddi – Haatik eguzkia dir-dir jaiki da.
Haizea hego aldetik dugu.
- Koldo – Dena dela mendebalera
itzultzen ari da.
Gero ipar haizea hotza da.
- Maddi – Bainan ez du hedoirik ekartzen.
Itzuli bat egin dezagun mendian.
Bista ederra iruditzen zait.
- Koldo – Mendiak eta pottokak
gustatzen zaizkit.
Halere zerua ez da garbi.
Lanbroa eroriko zaigu.
- Maddi – Beraz har ditzagun bizikletak.
- Koldo – Ez, ez, bizikletarik ez!
- Maddi – Ordokian ibil gaitezen.
- Koldo – Ala jauna! Errota zilo da!



195. Errepika - Nor nori

- Guri lanbroa etorriko zaigu.
- Guri lañoak etorriko zaizkigu.
- Guri lañoak ez zaizkigu etorriko.
- Zuri lanbroa altxatuko zaizu.
- Zuri lañoak altxatuko zaizkizu.
- Zuri lañoak ez zaizkizu eroriko.
- Mendia zuei ederra iruditzen zaizue.
- Pottokak zuei zaluak iruditzen zaizkizue.
- Arranoak zuei ez zaizkitzue ederrak iruditzen.
- Hurrei erbia joan (ihesi) zaie.
- Hurrei xoriak joan (ihesi) zaizkie
- Hurrei xoriak ez zaizkie hurbildu.

196. Eleketa - Eguraldi ederra.


Denbora ederraz mintza, itzuli bat egiterakoan.

1. Bihar eguraldi ederra ukanen dugu. Zer egingen dugu?
2. Zeruan lañoak izanen dira Gero eguzkia dir-dir jaikiko da...

197. Gizartean - Meteo telebistan

Euskal telebistan bi meteolari.

- Iñaki – Gaur egun eguraldi guziak baditugu.
Argitxu – Bizkaian eta Gipuzkoan eguzkia da eta zerua urdin urdina.
Iñaki – Araban eguraldi hitsa dute?
Argitxu – Araban goibel da eta Nafarroan euria ari da.
Iñaki – Iparraldean denbora hotza aments?
Argitxu – Iparraldean lañoak dira eta mendietan elurra erori da.
Iñaki – Haizea nondik da?
Argitxu – Haizea iparraldetik baina ahul, eta itsasoa bare.
Iñaki – Bihar eguraldia txartuko da?
Argitxu – Haizea indartuko da eta mendebaletik lañoak ekarriko ditu.
Iñaki – Beraz goizean haize eta euri.
Argitxu – Bai, eta arratsaldean uharrak (erauntsiak).
Han hemenka barazuza eta harria eroriko dira.



198. Errepika - Orain eta gero

- Egun euria egiten du, bihar eguzkia egingen du.
- Egun zerua goibel da, bihar zerua garbi izanen da.
- Egun haize hotza etorri zaigu, bihar haize beroa.
- Egun lañoak jin zaizkigu, bihar lañoak joanen dira.

199. Eleketa - Meteo

Mapa batean meteo eman ETB-n bezala. Meteo seinaleak:

- | | | | |
|-------------|---|--------------------|---|
| – eguzkia |  | – lañoak (hodeiak) |  |
| – euria |  | – elurra |  |
| – ximixtak |  | – haizea |  |
| – barometra |  | – termometra |  |

200. Kantua - Urtxo xuria

1. Urtxo xuria errazu

Nora joaiten ziren zu (bis).

Hego aldeko mendiak oro

Elurrez beteak dituzu.

Gaurko zure ostatu

Gure etxean baduzu (bis).

2. Ez nau izitzen elurrak

Ez eta ere gau ilunak (bis).

Maitea gatik pasa nintzazke

Gauak eta egunak.

Gauak eta egunak.

Desertu eta oihanak (bis).

Hiztegia 19

-191-

txar, tzar	: mauvais
gabardina	: gabardine
botak	: bottes
goibel	: nuageux
laño	: brouillard
aterki	: parapluie
uharra	: averse
haize	: vent
hotz	: froid
ortzia	: orage
ximista	: éclair
izitu	: effrayer
eguzki	: soleil

194-196

dir-dir	: brillant
mendebal	: ouest
ipar	: nord
itzuli	: randonnée
garbi	: propre
lambroa	: brouillard
ordoki	: terrain plat
hegoa	: vent du sud
pottok	: poney
zalu	: rapide
arrano	: aigle
ihs	: en exil

197-200

meteo	: météo
meteolari	: agent de météo
urdin	: bleu
hits	: pâle, triste
ahul	: faible
bare	: calme
txartu	: se détériorer
indartu	: se renforcer
uhar, erauntsi	: averse
hodei	: nuage
barazuza	: grêlons
harri	: grêle
desertu	: désert
ostatu	: hospitalité

Lau sasoiak

201. Etxean - Udaberria

Zuhaitz pean, udaberrian.

- Osaba – Nork ezagutzen ditu lau sasoiak?
Peio – Nik Udaberria, uda, udazkena, negua.
Osaba – Zein sasoi maiteago duzu?
Peio – Niri udaberria gustatzen zait :
uda, beroegi da, negua hotzegi.
Maidar – Niri ere bai.
Osaba – Eta zergatik ote?
Maidar – Loreen gatik. Pentzeak
izar lorez beteak bait dira.
Ioana – Niri udaberria gustatzen
zait txoriengatik
Osaba – Txoriak maite dituzu?
Ioana – Bai, kabiak egiten bait dituzte,
eta arraultzeak erruten dituzte.
Maidar – Gero txorikumeak sortzen dira.
Peio – Eta nik harri ukaldia emanen diet.
habailuaz: ihiztaria naiz.



202. Errepika - Bero, beroago, beroegi.

- Udaberria beroa da. – Itsas-haizea hotza da.
– Udazkena beroago da. – Eguzki-haizea hotzago da.
– Uda beroegi da. – Ipar-haizea hotzegi da.



203. Eleketa - Zer da ederrago?

Konparaketak egin gauzen artean:

1. Zer gustatzen zaizu, udaberria ala uda?
2. Niri udaberria gustatzen zait. Uda beroegi da.

- Zein da ederrago, izarlorea ala arrosa?
– Zein da euritsuago, larrazkena ala negua?
– Zein duzu nahiago, sagarra ala gerezia?
– Zein duzu maiteago, xakurra ala gatua?

204. Lagunartean - Uda ala negua?

Oporrak noiz, nesken arteko solasak.

- Mailux – Oporrak noiz hartzen dituzu?
Maddi – Koldori eta niri uda gustatzen zaigu eguzkia, hondartza, pestak. Zer zoriona!
Mailux – Nire ustez negua ederrago da: elurra, lerrazkina (eskia), eguberri. Zer atsegina!
Maddi – Alta niri uda negua baino ederrago zait. Zerua garbia dago eta itsasoa urdin urdina.
Mailux – Uda beroegi zait, eta turistak ibiltzen dira trumilka.
Maddi – Aldiz niri negua hotzegi zait: eguraldia euritsu bait da, eta gauaz izotza jausten bait da.
Mailux – Betikoa! Udan negua nahiago dugu, eta neguan uda.
Nagusi – Uda ala negu, oporrak nahiago!



205. Errepika - Eder baino ederrago.

- Bai, mendia ederra da.
Baina itsasoa ederrago da.
Hots, itsasoa mendia baino ederrago da.
- Bai, uda euritsu da.
Baina negua euritsuago da.
Hots, negua uda baino euritsuago da.

206. Eleketa - Oporrak noiz?

Bi ikasle oporretaz mintzo.

1. ikaslea – Oporrak udan ala neguan nahiago dituzu?
2. ikaslea – Nik oporrak neguan nahiago ditut.
1. ikaslea – Zergatik?
2. ikaslea – Bai, itsasoa ederra da. Baina mendia ederrago da.
- Adibideak – Igerika eskia baino atseginago.
– Negu kirolak merkeago, uda turismoa baino.

207. Lagunartean - Udazkena

Bata ihizin, bestea onddo bilan.

- Pattin – Onddoka ibilki, Manex?
Manex – Bai eta zu ihizin, Pattin?
Pattin – Bai, eguraldi ederrarekin.
Manex – Segur baietz.
Pattin – Ihiztarientzat udazkena sasoin ederrena da.
Manex – Zergatik ote?
Pattin – Usoak eta basa-ahateak etortzen baitira iparretik.
Manex – Laborarientzat ere udazkena sasoin aberatsena da.
Pattin – Hori iruditzen zaizu?
Manex – Haize hegoak zohitzen ditu artoak, gaztainak eta mahatsak.
Uzta asko biltzen dugu.
Pattin – Gero hostoak gorrituko zaizkigu. eta negu hotza etortzen zaigu.
Manex – Baina udaberrian bazterrak berriz piztuko zaizkigu.



208. Errepika - Eder, ederrago, ederrena.

- | | |
|---|--|
| – Bai udaberria ederra da.
Baina uda ederrago da.
Eta udazkena ederrena da. | – Uda euritsu da.
Udazkena euritsuago da.
Negua euritsuena da. |
| – Udazkena eder ederra da.
Udazkena biziki ederra da. | – Negua arrunt euritsua da.
Negua osoki euritsua da. |

209. Eleketa - Sasoi ederrena.

1. ikaslea – Zuretzat zein da sasoi ederrena?
2. ikaslea – Niretzat udazkena da sasoi ederrena.
1. ikaslea – Zergatik?
2. ikaslea – Hosto horiengatik.
Eta zuri zer irudi zaizu?
1. ikaslea – Niri ere larrazkena ederrena zait.
2. ikaslea – Zergatik?
1. ikaslea – Iratzeak gorri gorriak baitira.



210. Eztabaida - Zer sasoia!

- Udaberriaren ederra!
- Udaberria zein ederra den!
- Uda ederrago da!
- Udazkena ederrena da!
- Negua biziki ederra da!
- Ezetz! Udazkena ederrena da!

Hiztegia 20

201-203

sasoi	: saison
udaberri	: printemps
uda	: été
udazken, larrazken	: automne
negu	: hiver
lore	: fleur
izarlore	: pâquerette
kabia	: nid
habailu	: fronde
txorikume	: oisillon
txori	: oiseau

204-206

hondartza	: plage
eskia	: ski
lerrazkina	: ski
turista	: touriste
trumilka	: en foule

betiko	: éternel
kirol	: sport
igeri	: nage
euritsu	: pluvieux
izotz	: gelée blanche
jautsi	: descendre

207-210

ehiza	: chasse
ihizi	: gibier, chasse
ihiztari	: chasseur
onddo	: champignon
onddoko	: cueillette de champignon
ahate	: canard
basa	: sauvage
aberats	: riche
zohitu	: mûrir
gaztain	: châtaigne
uzta	: récolte
eztabaida	: discussion

Aurkibidea

Ikasgai bakoitzak badauzka hiru helburu :

- *komunikazio gertakariak beren funtzioekin ;*
- *gramatika egiturak, deklinabide ala aditz joku ;*
- *kultur gaiak, bereziki kantuak.*

11. Nortasuna : Hau itxura ederra!

- Jantziak. Zer neska ederra ! Asteleheneko begitartea.
- Neskek ile luzea dute ; zango arinak dituzte
- “Kontrapas” Bernat d’ Etxepare. 6. orrialde

12. Nahiak : Zer behar duzu ?

- Buruko mina. Logale dira. Ostatuan.
- Liburuak nahi dituzte ; lanik ez.
- “Xahakua”, Attuli (Barkoxe) 10. orr.

13. Ekintzak : Lan eta lan.

- Irakur edo idatz. Lanbideak. Non zer ari zara ?
- Sar zaitezte. Idatz ezazue, ikasleak.
- “Maiteak galdegin zautan” 14. orr.

14. Lekuak : Eskuin, ezker, zuzen.

- Non da geltokia ? Ibilaldia. Bide zuzena.
- Bideetan, bideetarik, bideetara.
- “Nungoa zira zu” 18. orr.

15. Gogoetak : Nongoa zara zu ?

- Hiru herrialdeak. Telebistan. Nolako gizona.
- Herrian, herritar. Noizko, nolako ?
- “Ziburutik Sarara” 22. orr.

16. Ingurua : Hau etxe ederra!

- Egoitza berria ! Etxea marrazten. Etxea erosten.
- Nor nori. Haurren hurrekin.
- “Ikusten duzu goizean”. 26. orr.

17. Eskabideak : Erosketak

- Liburu dendan. Present ederra. Okindegian.
- Zer nori nork. Haurrentzat, haurrendako.
- “Joan nintzen azokara” 30. orr.

18. Gertakariak : Egunero

- Eskolako berri. Ikasleekin. Egun zer eta zer ?
- Zer nori nork, bai ala ez.
- “Xarmegarria”. 34. orr.

19. Denbora : Zer eguraldia !

- Eguraldi txarra. Eguraldi ederra. Meteo
- Zer nori ; orain eta gero.
- “Urtxo xuria” 38. orr.

20. Sendimenduak : Lau sasoiak

- Udaberria. Uda ala negua. Udazkena
- Eder, ederrago, ederrena, ederregi.
- Fandango “Abendoa” 42. orr.

- Aurkibidea 46. orr.